



Bere omenezko aurrekuaren ostean, dantzariak herak eskaini zion Martin Fiz Astigarragako sagardo berriaren lehen iragoa.

Upeletan barrenako bidaia abian jarri du sagardoaren bihotzeko lehen txotxak

Martin Fiz kirolari arabarrak ekarri zuen jendaurrera Astigarragako sagardo berria atzo

«Hau de Astigarragako sagardo berria» eginez hasi eta «bikaina» esanez amaitu zuen Fizek hirutan errepikatu behar izan zuen aurkezpena, martxoa bitartean ba-

kailaoa, txuleta, gazta eta intxaurreak ha- maika mahaitan jantziko dituen saldaren presentazioa. Kanpaina luzeak sagardo polita ekarri du, gorputz handikoa eta

edan erraza, hori-berde kolorez botilan do- tore agertzen dena. Bildutako sagarra no- lako, sagardoa halako. Eta aurtengoa «apartekoa» deia nabarmendu zuten atzo.

Amagola MUJKA | ASTIGARRAGA

Bederatzigarrenez Astigarragako sagardo berria, soineko dotoree- na jantzi, eta jendaurrera agertu zen atzo, luzez sagardogileen mimoak jaso ostean. Martin Fiz kirolari arabarraren eskutik egin zuen salto upel eta botiletara da- tozen hilabeteetan maiteetan maiteena izango den saldak, As- tigarragako Petritegi sagardote- giko oholztan hain zuzen ere. Aurtengo sagardoa «aparteko- izat» jo zuten atzo sagardogileek eta aurkezpenean oholztakide izan zituenak ere parekoak ziren, punta-puntakoak.

Martin Fiz izan zen protago- nistakoa bat, nahiz eta atzokoan jaun eta jabe zen sagardoari ez zion itzalik egin. Azaldu zuenez, aspalditik ezaguna du arabarra-

ren aho-sabaiak sagardoa, aitagin- narreba eta amaginarreba Mutri- ku eta Elgetakoak izaki, hauen oniritzia lortzeko bidea ireki omen zion sagardoak. Gerora ere, eta Lasarteko kroserako buelta aitzakia hartuta, Diego Garcia zenarekin maiz egin omen zuen bisita Astigarraga al- deko sagardotegietara.

Bisitak bisita, muinean kirola- ria da Fiz eta maiz luze ere egin- go zaio upeletik upelerako tar- tea. Lagun izan zituen atzoko ekitaldian Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Sebastian Li- zaso bertsolariak eta ez zuten aukerarik galdu korrikalariaren ahulezia txiki hau bertsotan jar- tzeko. Lizasok Euskal Herriari sagardotegi asko daudela gogora ekarri eta gonbita egin zion Fizi. «denak dastatzen segi dezagun

lurrera erori gabe», kantatuz. Egaña ere gozo zirikatu zuen Martin Fiz. «zer den atleta iza- tea» eta «behin honezkero onena dugu baskaltzera joatea», bertsot- an esanez.

Sagarra nolako, sagardoa halako

2001eko sagar uza berezi sama- rra izan dela azaldu zuen atzo Joxe Angel Goñik, Astigarraga- ko Sagardogile Elkartearen bo- zerramaileak. Agertu zuenez, eguraldiagatik bi loraldi izan di- ra 2001 urtean, bata urrian eta azaroan bestea. Kanpaina luzea izan da, beraz, urrian bero eta azaroan hotz, azkenean kalitate «oso oneko» sagarra bildu da. Sagardotarako erabilitako sagra- rrenen ehuneko 40 bertakoa izan bada ere, ehuneko 60 kanpotik ekarri beharra izan da, Galizia,

Asturias eta Britainiatik, beste- ren artean. Gipuzkoako iazko sa- gardo uza begiratzu gero, gora egin du aurtengoak kantitatez eta ehuneko 12 gehiago ekoiztu da, bederatzi milioi litro inguru guz- tira. Horietatik hosi milioi litro Astigarragan ekoiztu dira.

Aurtengo sagardoa, bihartik apirila bukaera edo martxoa in- gurura arte salda maitea izango dena, azukre eta garaztasun ore- ka «bikainekoa» dela azaldu zuen Goñik. Gorputz handikoa, edan erraza, alai eta atsegina, bere unerik onena botilan dagoe- nean azaltzen duela ere gainera- tu zuten atzoko aurkezpenera gerturatutakoek.

Bertsolariak, txalaparta, au- rreskua eta Martin Fizen bedeinkazioa, Hasi da sagardotegi den- boraldia, hiru, bi, bat eta txotx!

Sagardotegia plazara

A.M. | ASTIGARRAGA

Astigarragako herria bihar sartuko da bete-betean sagardote- gien karreran, denboraldiaren irekiera ofiziala ez ezik, hiruga- trenez Txotxberri Festa ere hartuko baitu. Jaia igandean, hilak 20an, goizean goiz jarriko da martxan, 8.00etan abiatuko baita sagardotegiz sagardotegirako mendi iteera Barandiaran plaza- tik. Hain goiztiar ibili nahi ez dutenak herriko txistulariek es- natuko dituzte goizeko 10.00ak aldera. Ondoren, herriko base- ritarrek beren produktuak plazara jaitziko dituzte eta artisautza erakusketa ere ez da faltatuko. Goiz guztian, eta sa- bela sagardoz baino betetzeko arriskuari aurre egiteko edo, ia- loa izango da dastagai. Gainera, hirugarrenez Bakailao Tortilla Lehiaketa ere izango da. 13.00etan aurkeztuko zaio herriari sa- gardo berria, sagar dantzaren erimoz lagunduta. Herri bazka- riak, bertsolariak eta abere probek osatuko dute egitaraua.

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Musika Eskolan perkusio eta txistu eskolak emateko irakasketa baina aukeratu nahi dugu Udalak Lanpostea eskuratzeko interesaturik dagoenak CURRICULUM VITAE aurkeztu behar du Tolosako Udalareko Informazio eta Erregistroko bulegoan (P. Goroabel, 34 B), urtarrilaren 25eko 13.00ak baino lehen.

Udalak beharrezkotzat jotzen badu, proba praktikoren bat jarriko die hautagaiei.

Hautatutakoari ordezkapen kontratua egingo dio Udalak.

Tolosan, 2002ko urtarrilaren 15ean
ALKATEA / EL ALCALDE,
Antton Izaguirre Gorostegi



HERNANIKO UDALA

Anuncio

En sesión plenaria de fecha 27 de diciembre de 2001, fue aprobada inicialmente la "Ordenanza municipal reguladora del pastoreo en el monte U'soko-Epelerreka".

En cumplimiento del art. 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un periodo de 30 días de exposición pública para la presentación de reclamaciones y sugerencias. Dicho periodo empezará a contar a partir de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Hernanin, 2002ko urtar-
ALKATEAK, Murtxe Etze